

Espainiako Probintzia Auzitegiek 1868ko Iraultzan eta hurrengo urteko Konstituzioan dute beraien jatorria. Hau izango da behin betiko, justizia zibila, zigor-arloko justiziatik banatzeko beharra bezala sagaratu zen une historikoa.

Garaiko legegileek, hartutako konpromiso hori betetzeko, barruti judizial bakoitzean kide anitzeko auzitegi baten beharra zegoela ulertu zuten eta horrela, 1870an Botere Judizialaren Legean defendatu zuten.

Baina aurrekontu faltak 1882rarte bere sorrera ezinezkoa egin zuen, Prozedura Kriminalaren Legea aldarrikatu zen urtea berau. Une honetan da baita Kriminaleko berezko Auzitegiak jaiotzen direnean.

Hamar urte geroago, Errege Dekretu batek probintzia bakoitzeko Kriminaleko Auzitegi bakar bat egon behar zela ezarri zuen. Hau horrela, kide anitzeko berrogeita sei organo kendu ziren, probintzietako hiriburuetan kokaturik ez zeuden kide anitzeko organo guzti haiek hain zuzen ere.

Ondoren, 1983ko abuztuak 29ko Errege Dekretuak Lurralde Auzitegietak Kriminaleko Salak, Probintzia Auzitegietan bihurtu zituen eta hauen eskumena Instrukzioko Epaitegiak eta Bake Epaitegiak lutzatu zuen. 1968. urtean Probintzia auzitegiek gainera arlo zibilari buruzko gaietan eskumenak izan zituzten.